

Meda uharteak.

Costa Bravan, Montgrí mendigunetik milia batera, zazpi kare-harkaitzezko irlatxok eta zenbait uharrrik Meda uhartedi txikia osatzen dute. Mediterraneo itsasoko toki zoragarri honetako paisaia ederrean aurkitzen den bioaniztasuna balio biologiko handikoa da.

1990. urtean, Itsas Erreserba izendatu zutenetik, Meda uhartediko babesturiko 21 hektarea baino gehiagotan ur azpian bizi den fauna eta flora esponenzialki emendatu da.

Itsas-hondoko fauna eta flora kontserbatzeko asmoz Kataluniako gobernuak emandako babes neurrien arabera, uharteen inguruan arrantza debekaturik dago.

Eguzki-izpiek ur gardenak zeharkatu eta, ur-azpiko kobazuloetan sartzean, argi eta itzalezko sare-egiturak iruten dituzte. Bisitariaren begien aurrean, ikuskizun ikaragarria da hori.

Gaur arte, Meda uhartediko itsas-hondoetan itsas-organismo mota guztietako 1.350 espezie izan dira katalogatuak. Koral eta gorgonia komunitateak gailentzen dira euren distira eta dotoreziagatik.

Kolonia horien zuhaitz-egiturak kontserbatze sasoi onean daude. Organismo ñimiñoen multzo handiek Paramucea clavata espezieko gorgonia egitura lirainak sortzen dituzte. Abaniko eran adarkatuak, euren polipo eseri txikiek ur-lasterrek ekarritako planktona dute elikagai. Polipoek dituzten garroen zilioek muki-pelikularen bidez ahozulora bultzatzen dute planktona. Corallium rubrum koral gorriak ere, gorgoniak baino txikiago eda adarkatuagoa bera, substratu harkaiztsuan hartzen du oinarria, toki ilunetan batez ere: hormetan, harkaitz azpian eta kobazuloen sarreretan, esaterako.

Koral eta gorgoniek osatutako basoan, animalia mugikor anitzek aurkitzen dituzte babesa eta elikagaiak. Abadira gazteak, esaterako, euren kobetan ezkutaturik daude ehizatzeke une egokiaren zain: ea ondotik pasatzen den izkiraren bat harrapatzen duten.

Interes ekologiko handiagatik babestutako eta merkataritzari begira interesgarria den meroak, mediterraneo itsasoko serranido handienak, itsas-erreserba honetako ur sakonetan atsedena hartzen du, iluntasunean, arrastiriaren zain, eremu aberats honetan bere harrapakinak ehizatzeke.

Hondotik gertu, salpak, bogak, buztanbeltzak eta muxarrak ugari dira inguru honetan. Janari bila, taldeka egiten dute igeri, beste harrapari handiago batek harrapa ez ditzan. Ugariak dira hemen hainbat familiatako espezieak, eta horrela, arrain komunitate ikaragarria eratzen dute Itsas Erreserba honetan.

Azken ia laurogei urteetan, itsasargiaren etengabeko pilpira hasten da iluntzean, Medas uharteetan, itsaspeko aberastasun ikaragarria gordetzen duen uhartedi txiki honetan, behin bizi izan ziren itsasturi, pirata eta zaldunen inguruko istorio zaharrak atzean utziz.